



# Koronabirusa

## Coronavirus-Covid19

Abril de 2020ko apirila

Lehentasunak: Osasuna eta pertsonak

## COVID-19A: NEURRI BERRIEI BURUZKO OHIKO GALDERAK (2020-4-22an eguneratua)

### Zer esan nahi du nire enpresak ni ERTE batean sartzeak?

Esan nahi du kontratua etenda dagoela eta egoerak dirauen artean langabezia kobratuko dela. ERTEa eragin duen arrazoa amaitzen denean lan kontratua berriro indarrean egongo da, ERTEa ezarri aurretik zegoen bezala.

### ERTEak gehieneko iraupen bat ba al du, ezinbesteko egoera kasuetan?

**BAI;** gehieneko iraun dezake alarma egoerak eta honek izan ditzakeen luzapenek adina.

### Egia da gobernuak kaleratzeak debekatu egin dituela?

Gobernuak erabaki du ez dela izango kaleratzeko legezko arrazoiak koronabirusaren krisiarekin lotutako "ezinbesteko egoera eta zergati ekonomiko, tekniko, organizatibo eta produkziokoak". Arrazoi hauengatik ezin da 20 eguneko kalteordainarekin inor kaleratu. Langilea modu irregularrean kaleratuz gero, zergati faltsuak aipatuz, hark kaleratzea erreklama dezake.

### Litekeena da kaleratze objektiboren bat egitea?

**BAI.** Langileak zergati objektiboengatik kaleratzeko aukera badago, zergati horiek koronabirusarekin zerikusirik ez badute; diziplinazko kaleratze bat ere posible da, "langileak eginbehar bat modu larri eta errudunean bete ez duenean".

### Aldi baterako kontratu bat badut kalera nazakete?

Dekretuak dioenez, aipatu diren pandemiarekin lotutako zergati objektiboak "ezin dira ulertu lan kontratuaren amaiera zein kaleratzea justifikatzeko" arrazoi gisa. Enpresek arrazoi hauek medio ezin dituzte aldi baterako kontratuak amaitu.

Horregatik, kontratua alarma egoeraren ostean iraungitzekoa bazen, aldi baterako kontratuak jarraitu egin behar du; alarma egoera garaian amaitzekoa bazen, berriz, bertan behera gera daiteke, izan ere, kontratua mugatuta bazegoen (aldi baterako kontratua) eta epe hori bukatzen bada, amaiera justifikatuta bailegoke.

### Eta enpresak aldi baterako nire kontratua amaitzen badu?

Enpresak kontratua amaitzen badu langileak auzitegira jo dezake erabakiaren kontra, amaiera hori kaleratze gisa aitor dadin. Gainera, iruzurrezko aldi baterako kontratu ugari dago, paperean aipatzen den zergatia benetan ez dutenak, eta kasutan ere kaleratzeagatik erreklama daiteke.



[ela.eus](http://ela.eus)



EUSKAL SINDIKATUA



## Martxoaren 28ko 9/2020 Err. Lege-Dekretuaren aurretik kaleratu baninduten, legezkoa da?

Koronabirusarekin lotutako zergati objektiboengatik egindako kaleratzeen eta kontratu amaieren debekua martxoaren 28an sartu da indarrean, eta ez dauka atzera eraginik egun horren aurretik Covid-19arengatik izandako kaleratzeekiko. Beraz, enpresa batek kaleratzea modu egokian justifikatu bazuen, legezkoa da.

Aldi baterako kontratuei dagokienez, ezarritako epealdia baino lehenago amaitzea lehenago ere kaleratze bidegabetzat jotzen zen; horregatik, eragindako langileak auzitegira jo dezake inpugnatzeko.

## Aldi baterako kontratu bat badut ERTEan sartu behar naute?

**BAI.** Gainera, ERTEan sartu bezain pronto **aldi baterako kontratuaren iraupena etenda geratzen da;** hau berriz hasiko da ERTEa amaitutakoan. Behin ERTEak igarota, aldi baterako kontratu horiek berriz indarrean jartzen dira, espedientea luzatu den denbora kontutan hartzen ez delarik.

**ERTEan aldi baterako kontratuak ez sartzea diskriminazioa da eta kaleratzearen parekoa da;** 20 eguneko epean erreklamatu behar da behin alarma egoera igarota (erreklamatzeko epeak etenda daude alarma egoerak irautesen duen artean).

## ERTE batean ez banago, telelanik egiten ez badut eta oinarrizko jarduera batean lan egiten ez badut lanera joan behar al dut martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean?

**EZ.** Martxoaren 30etik apirilaren 9ra arte oinarrizko jarduera batean lan egiten ez duena eta telelanean ari ez dena **baimen ordaindu berreskuragarri egoeran** dago; enpresak soldata ordainduko du eta ez da lanera joan behar. **Enpresarekin negoziatu behar da orduak nola berreskuratu,** langileen ordezkarien eta enpresaren artean irekiko den kontsulta aldi batean; honek gehienez zazpi egun iraungo du.

**Oinarrizko jarduera** batean lan egiten baduzu (BOE eranskinean ikusi zerrenda), zure lanpostura ohi bezala joan behar duzu.

Baimen ordaindu berreskuragarria ez zaie aplikatuko ERTE bidez kontratua etenda duten pertsonen (baimendua, baimentzeko bidean dagoena edo apirilaren 9a baino lehenago onartzen dena), edota aldi baterako ezintasun egoeran nahiz telelanean daudenei.

## ERTE batek eragin badit ba al dut langabeziarako eskubidea?

**BAI.** Langabeziarako eskubidea guztientzat aitortzen da, ez baita exijituko prestazioa jasotzeko gutxienez 360 egun kotizatu izana; guztiek kobratuko dute, eta gainera, langabezia kobratzen ari naizen epe hori ez da langabezia kontsumituztat hartuko.

## ERTE batek eragiten badit langabezia eskatu behar dut?

**EZ DA TRAMITERIK EGIN BEHAR,** langabeziaren kudeaketa zuzenean egingo dute enpresak eta SEPEren artean.

## ERTE batek eragiten badit zenbat jasoko dut langabeziatik?

Lehen 6 hiletan zure kotizazio oinarriaren %70 eta zazpigarren hiletik aurrera %50.



[ela.eus](http://ela.eus)



**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## ERTE batek eragin ez duen langabezia egoeran banago langabezia eskatu behar al dut?

**BAI.** Horretarako honako urratsak jarraitu behar dira:

### 1. Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena eman.

Aurrez izena emanda egon bazara eta demanda baja egoera badago aski da zure erabiltzaile eta pasahitzarekin Nire Lanbideneten sartu eta egoera aldatzea, "alta"ra pasatuz.

Pasahitzik ez baduzu, Nire Lanbideneteko sarbide orrian bertan eska daiteke, "Eskatu pasahitza" aukeran.

Inoiz izena eman ez baduzu honako estekaren bidez egin dezakezu: Lanbideko **Alta eskaeraren erregistroa** (Telefonoz: **945 160 600 / 630 305 452**).

. **Nafarroan:** Zure kontaktu datuak utzi **www.emplo.navarra.es** webguneko **Cita previa atalean eta zurekin jarriko dira harremanetan.**

**2.** SEPEren webgunean prestazioa/laguntza eskatu edota harremanetan jarri eurekin honako telefonoetan: 900 81 24 00 / 900 81 24 01

**3.** Eskakizunak betez gero DBE honako estekaren bidez eska dezakezu:

### Registro de solicitud de RGI

## Langabezia aurrez kobratzen ari banintzen berritzea eskatu behar dut?

**EZ.** EAEn 2020ko martxoaren 11 eta apirilaren 30 bitartean, biak barne, berritze data duten eskari **GUZTIAK AUTOMATIKOKI BERRITUKO DIRA**, eta **NAFARROAN** eskariak **Alta egoeran mantenduko dira ohiz kanpoko egoera honek dirauen artean.**

## Nola kontsulta dezaket nire langabezia prestazioaren tramitea SEPEn zertan den?

Modu telematikoan kontsultatu helbide honetan: **https://sede.sepe.gob.es** Jarraitu honako urratsak:

"Prozedura eta zerbitzu elektronikoak" atalera joan. >> Klikatu "Pertsonak" >> Klikatu "Kontsultatu prestazioen datuak eta ordainagiria". >> Klikatu "Prestazioaren kontsultak" >> Hautatu "Kontrasteko datuak". >> Zure IFZ/IEZ sartu, kobratzeko eman zenuen banku-kontuaren azken 10 digituak eta zure telefono zenbakia.

Prestazioa onartuta badago zenbatekoa eta iraupena ikusiko duzu.

## Bajan edo amatasun/aitatasun baimenarekin banago, ERTEan sartu behar naute?

**BAI.** ERTEa tramitatzen denean bajan bazaude, amatasun edo aitasun egoeran, ERTEan sartuko zaituzte. Baina Gizarte Segurantzak ordainduko dizu alta eman arte. Alta jasotakoan langabezia kobratzen hasiko zinateke. Behin ERTEa hasita baja egoeran sartzen bazara, Gizarte Segurantzak ordainduko dizu, baina langabeziatik kobratzen zenuen zenbateko bera. ERTEa hasi eta amatasun edo aitasun egoera gertatuz gero, langabezia prestazioa eten eta zuzenean Gizarte Segurantzak ordainduko lizuke.

## Enpresak behartu nazake oporrak hartzera?

**EZ,** oporraldia elkarren arteko akordioz hartzen baita. Derrigortzan bazaituzte enpresaren agindua bete ezazu eta, alarma egoera igarotakian, 20 eguneko epea duzu errekurritzeko; alarma egoerak dirauen artean epeak etenda daude. Garrantzitsua da agindua idatziz eman diezazuten eskatzea.



ela.eus



**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA